

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak dio ETaren amaieraren historia terrorismoaren biktimek idatziko dutela eta ez hiltzaileek

Gobernuaren eledunak balorazio hori egin du astelehen honetan Donostian izandako konferentziaren ondoren

Martes, 18 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak, Juan Luis Sánchez de Muniáin bere eledunaren bitartez, adierazi du "terrorismoaren

amaierako historia biktimek idatziko dutela, inoiz ez ETaren hiltzaileek", biktimak baitira "Nafarroan, EAEn eta Espainian, demokraziaren eta askatasunaren benetako bultzatzaileak".



Nafarroako Jauregiaren aurrealdea.

Kontseilari-eledunak baieztatu du atzo Donostian egin zen konferentziaren antzeko ekimenekin "ETAk nahi duena da bere amaiera erakunde armatuaren ondare bihurtu, terrorismo etarrari buruzko bere bertsio guztiz zitala uzteko". Nolanahi ere, adierazi duenez, "hori egiten duen aldi guztietan, demokrata guztiok eta haien ordezkariak interes horri uko egingo diogu".

Sánchez de Muniáin-ek baieztatu duenez, "ETaren amaieraren aurrean gaude, eta amaiera hori Espainiako gizarte osoaren ahaleginari esker gertatu da eta, batez ere, Estatuko segurtasun-indarrek, epaileek, demokraziak, hauteskondeek, legeek eta, bereziki biktimek egindako ahaleginari esker".

Horregatik, aipatu duenez, "Gobernuak eta Espainiako nahiz Nafarroako gizarteak ez dute ETari ezer eskertu beharrik hiltzeari utzi izanagatik, ez diote ezer zor", eta azpimarratu du Nafarroako Gobernuak ETA talde armatuarengatik espero duen gauza bakarra hura desagitea dela, armak entregatzea eta, batez ere, sortu dituen milaka biktimak aitortzea eta barkamena eskatzea.